Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasuna
Igualdad

# Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala – Eraketa bilera

## Consejo Sectorial para la Igualdad

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2016ko maiatzak 5**/ 5 de mayode 2016<br>**Uugull Sala, Udaletxea** /Sala Urgull. Edificio Consistorial<br>**18:00etan** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **20:00tan /** A las 20:00 horas |

### GAI-ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko aktaren onarpena.** | 1. Aprobación del acta anterior. |
| **2. Emakumeen Etxeko Erasoen Aurkako Batzordearen aurkezpena.** | 2. Comision Antiagresiones de la Casa de las Mujeres |
| **3. Kontseiluko lan taldeen eraketa** | 3. Composicion de los grupos de trabajo del Consejo |
| **4. III.Berdintasun Planaren 2016.ko ekintza plana** | 4. Plan operativo 2016 del III. Plan de Igualdad |
| **5. 2016ko aurrekontuen murrizketen inguruko informazioa** | 5. Presupuestos 2016, información sobre reducción. |
| **6. Kontseiluaren izenean, informazio trukaketaren inguruko protokoloa adostea** | 6. Como protocolizar el envíode información y el feed back, en nombre del Consejo |
| **7. Besterik** | 7. Varios. |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE (Duñike Agirrezabalaga) Auzoetako eta deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE (Duñike Arrizabalaga) Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | 1. **EH BILDU** — Naiara Sampedro<br>2. **IRABAZI - GANAR DONOSTIA** — Amaia Martin Garin<br>3. **PSE – EE** — MªLuisa Garcia Gurrutxaga |
| **HERRITARREN ELKARTE ETA BERDINTASUNAREN ARLOAN GIZARTE-OSPE BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK**<br>ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD | **1.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE**<br>**2.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE**<br>**3.- Emak. Bananduen Elkartea / Asociación de mujeres separadas**<br>**4.- ERNE**<br>**5.- ARRATS Elkartea / Asoc. ARRATS**<br>**6.- ELKARTU ( Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioa / Federación de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa**<br>**7.- DANDAI**<br>**8.- 1.Herritar norbanakoa / Representante ciudadana nº 1** |
| **EZ DIRA ETORRI ETA/EDO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON | **1.- EAJ-PNV**<br>**2.- EMAKIN**<br>**3.- PLAZANDREOK**<br>**4.-INTXAURRONDO BERRI**<br>**3.- LAGUNAK**<br>**4.- GEHITU**<br>**5.-HAURRALDE Fundazioa**<br>**6.-FORO MUJERES Y CIUDAD**<br>**7.-Donostiako Berritzegunea**<br>**8.- LAB** |
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL | **Agente de Igualdad** — Naiara Garate |
| | |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Gonbidatu 1egon da saioaren haseran. 11 BKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Berdintasuneko zinegotzia, aholkularitza teknikoko ordezkari 1, idazkaritza tekniko lanetan.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = **14**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **0**<br><br>1 persona invitada al inicio de la sesión. 11 personas integrantes del CSI, además de la Concejala delegada de Igualdad, y 2 representantes del cuerpo técnico municipal como secretaría técnica |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO | **Berdintasun Bulegoa** - Negociado de Igualdad : Emakumeen Etxea, Okendo 9 / 943 48 34 64 / berdintasuna@donostia.eus |

# SAIOAREN BILAKAERA:

## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

### 1. Aurreko Kontseiluaren akta onartzea.

Aldaketarik egiteko proposamenik edo iruzkinik ez dagoenez gero, aurreko akta onartu egin da.

### 2. Emakumeen Etxeko Erasoen Aurkako Batzordea

Batzordekideek beharrezkotzat jotzen dute aztertzea bai Emakumeen Etxean egiten den lana bai indarkeria matxistari aurre egiteko eskura dituzten baliabideak. Helburu dute "Tratu txarrak jasaten dituen emakumearen Mapa" sortzea eta emakumeek bizi duten errealitatea ezagutzea.

Lan ildo horri jarraituz, 2015ean salatu zuten 016 telefono-zenbakiak, baietz, utzi egiten duela arrastoa mugikorretan. Gaur egun, harremanetan daude Emakunderekin eta Gobernuaren ordezkariordearekin, arrasto hori ezabatu dadin. 2014az geroztik, jardunaldi irekiak antolatzen dituzte, gai horren inguruan prestakuntza jasotzeko eta hausnarketa egiteko. Aurten, uztailan izango dira jardunaldiok.

Indarkeriari buruzko Kontseiluko lantaldea osatzen denean, hitz egingo dutela erabaki dute, nola koordinatu aztertzeko.

### 3.- Kontseiluko lantaldeen osaera.

Prostituzioari buruzko lantaldean zer egin behar den eztabaidatu eta gero, kolektibo horri dagozkion eskubideei lotutako gaiei heltzea erabaki da. Ez dute jarrera jakin bat hartuko jardun hori arautzeari edo abolitzeari dagokionez.

**Indarkeria matxistari buruzko taldea:**
**Kontseilukide hauen ordezkariak:**

Berritzegune
Plazandreok
Irabazi
Asade
1. Herritar norbanakoa
Haurralde
Elkartu
Elkartu
Erne
Arrats

*(1. deialdia, maiatzaren 12an, 18:00etan, Emakumeen Etxean)

### 1. Aprobación del acta del Consejo anterior.

Al no haber ninguna propuesta de modificaciones, ni comentario al respecto, se aprueba el acta anterior.

### 2. Comisión Antiagresiones de la Casa de las Mujeres.

Las integrantes de la comisión ven la necesidad de revisar el trabajo que se realiza en la Casa de las Mujeres y los recursos que están a disposición de éstas para enfrentarse a la violencia machista, con el objetivo de elaborar un "Mapa de la mujer maltratada" y conocer la realidad con que se encuentran las mujeres.

Siguiendo esa línea de trabajo, en 2015 denunciaron que el 016 sí deja rastro en los móviles, y actualmente están en conversaciones con Emakunde y con el subdelegado del Gobierno para que se elimine dicho rastro. Desde 2014 organizan jornadas abiertas para formarse y reflexionar sobre este tema, jornadas que este año serán en julio.

Se acuerda que cuando el grupo de trabajo de violencia del Consejo tome forma, hablen y vean cómo coordinarse.

### 3.- Composición de los grupos de trabajo del Consejo

Tras un debate sobre el trabajo que debe realizarse en el grupo de trabajo sobre Prostitución, se acuerda abordar la temática relacionada con los derechos que corresponden al colectivo, desvinculándose de posicionarse sobre las opciones de regularización o abolición de esta actividad.

**Grupo sobre violencia machista:**
**Representantes de**

Berritzegune
Plazandreok
Irabazi
Asade
Representante ciudadana nº 1
Haurralde
Elkartu
Elkartu
Erne
Arrats

*(1. convocatoria 12 de Mayo 18:00 en la Casa de las Mujeres)

**Prostituzioari buruzko taldea:**
**Kontseilukide hauen ordezkariak:**

Asade
Irabazi
Arrats
1. Herritar norbanakoa_

**Gizarte bazterkeriari buruzkoa:**
**Kontseilukide hauen ordezkariak:**
PSE-EE
Elkartuko bi kide
Arrats

Berdintasun Kontseiluak Gizarte Kontseiluan duen ordezkariak dio, egiten ari den azterketa dela-eta, berak bidalitako informazioa ez dela iritsi. Berdintasunak bidali zuen, baina, antza denez, ez da ailegatu eta, hortaz, Kontseilukide guztiei bidaliko zaie berriro. Azaldu du, baita ere, alde kuantitatiboan ez dela bereizitako daturik jaso, baina lanean jarraituko dutela Gizarte Kontseiluan aurkezten diren txostenen gainean. Harrituta dagoela dio, BESTEAK lantaldean sartu dituztelako eta ez, BAZTERKETAri buruzkoan. Elkarturen ordezkari baten esanetan, beren egoera are okerragoa da, beren elkartea ez baitago lantalde batean ere.

**Grupo sobre prostitución:**
**Representantes de**

Asade
Irabazi
Arrats
Representante ciudadana nº 1

**Grupo sobre exclusión social**
**Representantes de**
PSE-EE
Dos personas de Elkartu
Arrats

La representante del Consejo de Igualdad en el Consejo Social dice que no llegó la información remitida por ella sobre el estudio que se está elaborando. Desde Igualdad se reenvió, pero al parecer no llegó, por lo que se volverá a enviar a todas las integrantes del Consejo. Se explica así mismo que en la parte cuantitativa no se han recogido datos desagregados pero que seguirán trabajando sobre los informes que se presenten en el Consejo Social. Muestra su asombro ya que en los grupos de trabajo les han encuadrado en el grupo de trabajo de OTROS y no en el de EXCLUSIÓN. Una representante de Elkartu dice que su asociación ni siquiera está en los grupos de trabajo.

## 4.- Berdintasunerako III. Planaren 2016ko Plan Operatiboa.

Berdintasuneko teknikariak urteko Plan Operatiboari eta III. Plana gauzatzeko eratutako barne batzordeei buruzko informazio laburra eman du. Batzorde Politikoa, Teknikoa, Berdintasuneko Batzorde Teknikoa (laneko gaietarako), Puntu Kritikoen Taldea eta Sailen arteko Lan Batzordeak aipatu dira. Saila bera zuzenean kudeatzeko programei dagokienez, 2016rako planteatutako lanak aipatu dira. Hona hemen: plana sistematizatzea, emakumeak eta kirola, indarkeria sexista prebenitzeko kanpaina, literatura feminista, zaintzak, kultura anitzeko gunea, indarkeria matxistaren aurkako emakumeen taldea, Emakumeen Etxearekiko hitzarmena, elkarteentzako diru laguntzak eta hiriko puntu kritikoetan inbertitzea.

EH Bilduren zinegotziak galdetu du Kirol Patronatuarekin egiten den lanaz eta azpimarratu du, bestalde, faltan botatzen duela Sustapenarekiko Planaren inplementazioa.

## 4.- Plan operativo 2016 del III Plan de Igualdad

La técnica de igualdad resume el plan operativo anual y las comisiones internas creadas para la ejecución del III Plan. Se menciona a la Comisión Política, la Técnica, la Comisión Técnica de Igualdad (para temas laborales), el grupo de Puntos Críticos, y Las Comisiones de trabajo intedepartamentales. En cuanto a programas de gestión directa del propio departamento, se mencionan los trabajos planteados para el 2016 que son: sistematización del propio Plan, mujeres y deporte, campaña de prevención de la violencia sexista, literatura feminista, cuidados, espacio multicultural y el grupo de mujeres contra la violencia machista, así como el convenio con la asociación Casa de las Mujeres, las subvenciones a asociaciones y las inversiones en puntos críticos de la ciudad.

La concejala de EH Bildu pregunta por el el trabajo con el Patronato de Deportes y recalca que echa de menos la implementación del Plan con Fomento.

## 5.- 2016ko Aurrekontuei buruzko informazioa

Berdintasuneko zinegotziak Berdintasun Bulegoaren 2015 eta 2016ko aurrekontuak alderatu ditu, labur. Postaz bidaliko dute konparaziozko taula biltzen duen artxiboa.

## 5.- Información sobre Presupuestos 2016

La concejala de Igualdad hace un resumen comparativo de los presupuestos 2015-2016 del Departamento de Igualdad. Se enviará por correo el archivo de esta tabla comparativa.

## 6.- Nola protokolizatu Kontseiluaren izenean bidaltzen den informazioa eta feedbacka.

Hainbat erabaki hartu dituzte: batetik, eta datuak babesten direla bermatzearren, Kontseilua osatzen duten kide guztien izenak jasotzen dituen taula bidaliko zaie parte-hartzaile guztiei, denok izateko denon posta-helbideak; bestalde, mezu elektronikoak ezkutuko kopia moduan bidaliko dira beti.

Mezu elektroniko gehiegi ez bidaltzeko, baina, aldi berean, informazioa ez mugatzeko, erabaki da gaiak Batzorde Iraunkorreko partaideekin lantzea eta, gero, aukeratutako mezuak baino ez bidaltzea. Partaideren batek informazioa, gutunak, e.a. bidali nahi izanez gero, berak zuzenean igorri beharko dituela erabaki da, Berdintasun Sailak ez baditu horrelako gauzak bidaltzen.

## 6.- Como protocolizar el envío de información y el *feedback* en nombre del Consejo

Se acuerdan varios puntos: por una parte y para garantizar la protección de datos, se enviará una tabla de integrantes del Consejo a todas las participantes, a fin de que todas tengan los correos de todas. Posteriormente, se enviarán siempre los correos en copia oculta.

A fin de no excedernos en el envío de los correos electrónicos pero que a la vez no se restrinja la información, se acuerda trabajar los temas con las participantes de la Comisión Permanente y luego enviar los mensajes que se haya decidido. En caso de que alguna participante quiera enviar información, cartas etc., se acuerda que lo haga ella directamente, ya que ese tipo de reenvíos no se realizarán desde el departamento de igualdad.

## 7.- Beste gai batzuk

Kontseilukide batek aditzera eman du Anoetako partidatan "animatzaileak" agertzen hasi direla publizitatea egiten, argi eta garbi sexista den era batean. Talde teknikoak eskatu dio informazio zehatzagoa bidaltzeko, aipatu duen kirol ekitaldia zein egunetan izan den zehatz-mehatz jakiteko eta, hala, esku hartu ahal izateko.

Bestalde, EH Bilduko zinegotziak indarkeria sexistaren inguruan bere alderdiak antolatu dituen jardunaldiak aipatu ditu. Esan zaio berak bidaltzeko informazioa kontseilukideei.

Azkenik, erabaki dute Idazkaritzarekin hitz egitea, ikusteko zer egin daitekeen, Herritarren Segurtasunerako Legea dela-eta, indarkeria matxistagatiko hilketak salatzeko egiten diren elkarretaratzeak oztoporik ez izateko.

Naiara Garatek egindako akta.

## 7.- Varios

Una integrante del Consejo informa de que en partidos en Anoeta está habiendo "animadoras" para hacer publicidad, de una manera claramente sexista. Desde el equipo técnico se le solicita que envíe información más detallada sobre la fecha exacta del evento deportivo que se menciona para poder actuar.

Por otra parte, la concejala de EH Bildu menciona unas jornadas sobre la violencia machista que éste partido ha organizado y se le indica que envíe ella misma la información a las integrantes del Consejo.

Por último se acuerda hablar con Secretaría para ver como las concentraciones de denuncia de los asesinatos por violencia machista no se obstaculicen por la Ley de Seguridad Ciudadana.

Acta recogida por Naiara Garate.